HEDOI ETXARTE

sinplistak



Sinplistak

Hedoi Etxarte

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2012 Hedoi Etxarte
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2012ko azaroa
Edizio berri hau: 2012ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

BAT

NORBERAK BERE IKUSPUNTUA DU

(euro moneta unitatearekin irakurtzeko poema)

«Norberak bere ikuspuntua du» dio
hilean 2.700 jasotzen duenak.
«Masaila sorbaldatik bereiziko dizugu» dio
hilean 682 irabazten duenak.
«Bilatzen ez duelako ez du lanik...» dio
1.500 jasotzen duenak eta
«... ze lana, egon, badago» gehitu du
710 irabazten duenak, eta
715 irabazten duen lankideak
modu txarrean jaurti dio:

]ROBERT DESNOSEN ERRETRATUA
Ikusi al duzu askatasuna?
Berdintasunarekin oheratzen da,
Zatar doa
Eta ez bada gogaitzen
itsasoko suge txiki bat emango diogu
zeinak sorbaldak estaliko baitizkio,

Anaitasunaren Estatu Batuen gisa batu[

682 irabazten duenak hirugarren
pertsona singularrean jarraitu du:
«1.500, 682, 2.700, 478 edo 3.500,
hori da bakoitzak duen ikuspuntua»
eta lehenengo pluralean oldartu da azkenik:
«Masailak sorbaldetatik bereiziko dizkizuegu!».

~~[«kontuak ez dira hain sinpleak»~~
~~otu zaio irakurle bati. Bada, esaguzu zein~~
~~den zure ikuspuntua. «Demagogia hutsa~~
~~egiten ari zarete kontu honekin». Ados,~~
~~psikoanalisia zientzia dela onartzeko prest~~
~~gaituzu~~
~~borondate onez, 450 sesioko, Onfray testigu]~~

Péret zehaztasun ariketak egiten ari zen
Massonentzat.
Ernstek bibotea ebakitzen zion luzapen-denborari
eta Gala Éluardek errebolberra biratzen zuen.
Egun, jakina da Plaza Berriko gillotinaren ahoak
huts egiten zuela aldian-aldian. Garai hartan
ez zegoen hain argi eta soberan zen oharpen oro.

EMAKUME BAT MAITATZEA

Arabako Arte Ederretako Museora doala
Imanol Leozek bere buruari esan dio:
«Erridikulua da emakume bat maitatzea».

Arabako Arte Ederretako Museoko metalezko ateek
burutxoak dituzte, irtetean begiratzen zaituzte
eta horrek Imanol Leozen pentsamendua garatu du:
«Emakume bat maitatzea da ohartzea, oinez zoazela,
albotik igaro zaizula txirrindulaz, aurreratu egin zaituela
ziztuan. Ipurmasail lirain horiek ikusi dituzu aulkian.
Ezti koloreko lepoaldea du, nabarmenegia. Abian doa
tixert gorri askea. Badakizu ez duzula sekula berriz
ikusiko txirrindulari emakumezkoa, eta orduan
zure eta bere arteko distantzia handitzen den heinean
handitu egingo da zure maitasuna. Erremediorik gabe.
Haren atzetik korrika joatea da maitasuna, izerdi

patsetan, tempoak larri zauritutako atleta baten moduan.
Ez gehiago berotzearren oinez jarraitzea erabaki duzu
baina horrela, bistan da, ez zara inora iritsiko».

Arabako Arte Ederretako Museo aurreko belardian
Imanol Leozek ahots gora esan du:
«Ridikulua da emakume bat maitatzea».
Baina Baskonia saskibaloi taldearen aldageletan
gertatzen ari denaren zuzeneko emanaldia
entzuten ari da sarrerako morroia.

Imanol Leozek ez du Arabako Arte Ederretako Museoan
lan egiten, baina hangoek hala balitz bezala jokatzen dute.
Entzungailuak kendu ditu sarrerako morroiak eta
Imanol Leozek azaldu dio: «Emakume bat maitatzea da
ikustea nola zu oinez zoazen eta bera txirrinduan, eta zu
izerdi patsetan, tempoak larri zauritutako atleta
baten moduan, eta kito!, hurrengora arte!».

Orduan sarrerako morroiak Imanol Leozi esan dio: «Naiara Zubeldiaren senarra naiz».

Arabako Arte Ederretako Museoa historiako lehenengo museo interaktiboa da: ibili ahala lurrak karrak egiten du lehenengo solairuan.

Naiara Zubeldiaren senarra jakitun da, eta sarri horregatik dute gehiagotasun ukitua bere hitzek.

EZTA HAZIA EREITEKO ERE

Bat egin. Bat argitaratu. Bat ordaindu.
AZ kazetariari piezaka ordaintzen dizkiote
artikuluak.
Ez dago, noski, egunkariko langileen zerrendan.
«Orain aske zara, nahi bezala antolatu zure
ekoizpena»
esan zion pertsonal-buruak erredakziotik botatzean.

Hilabete geroago AZ kazetariari iruditu zitzaion:
«Gaur egun aita bananduek ezin dituzte
seme-alaben opariak hartu,
jatetxe goxoetara eraman
eta mahai azpian ezkutatu;
ezin dute haien errua ordaindu
edo errebolta kulinariorik erakutsi
hanburgesategi eta pizzerietan».

AZ kazetariak telefono konpainia aldatu zuen.
Oso ona zen ordura arte eduki zuen eskaintza

baina tratua amaitutakoan garesti ordaindu behar
zuen:
«Berdintasun teknikariek, epaile jaun-andereek,
gaizki txortatutako herritarren ordezkariek,
politikoki zuzenaren prokuradoreek,
erdi mailako koadro polimili ohiek
harresiaren bestaldera bidali dituzte aita
bananduak.
Eta gainera, nonbait, telebistak dioenez,
gizonezkoak ez du hazia ereiteko ere balio».

Principal Antzokiaren sarrera gelan
LS jaunarekin topo egin zuen AZk.
Ilaran zain zeuden biak.
LS jauna AZ kazetariaren
emazte ohiaren senar ohia zen.
Txandak astiro egiten zuenez aurrera,
AZ kazetariak esan zion:
«Gizonezkoak bortxaz bakarrik omen daki
eta bera da gerra eta gaiztakeria
ororen erantzule behinena.
Ankerkeriak egiten dituen emakumezkoa,
aldiz, gizon-guran ari omen da».
AZ kazetaria ez zen arrats hartako

ikuskizunerako txartel bila joan:
«Orain seme-alabek ez dute aitarik nahi».

LS jaunak zaplatekoa jo zion bizkarrean,
koitoan zakila makaldutakoan jo ohi den gisan,
«ez da ezer gertatzen» esaldiak «ez dakigu zer
baina larria den zerbait gertatzen ari da»
adierazi nahi izaten duenean bezala.

LS jaunak banandu ostean
ez zuen bizitza berregin behar izan,
aurretiaz ez baitzitzaion apurtu.
Sasoi hartan LS jauna igandeetan
Armentiara joaten zen paseoan.
Hiru tradizio dira nagusi
Gasteizko oinezkoen artean:
Armentiara doazenak,
Olarizura doazenak,
Salburuara doazenak.

ALUA JATEKO POSIZIOA

Alua posizio honetan jaten dizut
uzkia ikusi eta usnatzeko.

Eta hala ere badakit kakeria iraiztean dugun
ezinegonak
ez duela urdailaren egoerarekin harremanik,
uzki-eraztunaren funtzio bereizlearen galerak
sortzen digula umiliazio eta min guztia.

Eraztunak ez badu barneko edukia blokatzeko
gaitasunik
apaldua sentitzen da deusetarako dagoelako
eta orduan alimaleko oinazez laurdenkatu nahi gaitu
gu geu maila berean geldi gaitezen inutil.

Haatik, jakizu, uzkiaren funtzio bereizlearen gogoeta
hau
ez zaidala posizio honetan alua jaten dizudanean
bururatu.

HOSTO HILAK JASOTZEN

Otsoak zakurrak gorroto ditu
eta pertsonak.
Baina batez ere zakurrak.
SERGEI DOVLATOV

Gaur gauean trenean sartu da Itziar Iriarte.
Donostian igo da eta Gasteizen jaitsiko da.
Bere konpartimentuan angolar bat,
bi frantses eta Parisko portugaldar bat doaz.

Isileko poliziakide nabarmenek
NAN zenbakia eskatu diote, gurasoen
izen abizenak, non jaio den, nondik
datorren, nora doan, zer egin duen han.

Agenteek alde egin dutenean
Itziar Iriartek frantsesetako bati esan dio:
«Bai, andrea, hemen guk egiten dugu
paperik ez dutenen papera,
homo sapiens sapiens zuriok».

Behiala mugazainek ipurmasailak
zikindu zizkioten Itziar Iriarteri.
Sei zineten, bera bat.

Jakizue, hosto hilak bezala eroriko dela
bere xafla zuen lepoetan! Bere justizia
ez dela itsua eta zuen uniformeak daramatzaten
guztien gainean pisu berberaz trenkatuko dela.

Itziar Iriarteren errepublikan
hilotzak izango zarete eta
ipuinen estatusa izango duzue
desagerrarazi ostean.

Itziar Iriartek ez du errukirik izango,
zaborra delako zuek ukitutako guztia.
Erre egingo du zuek landutakoa,
lehertu egingo du zuek begiratutakoa,
urperatu egingo du zuek piztutakoa.
Erraustu egingo ditu zuen herriak
eta zabortegiak eraikiko gainean.

Itziar Iriartek zuen gorotzak
janaraziko dizkie zuen seme-alabei.

KALKULAGAILUA

Primarioa da Garbi Ramosen zenbakiekiko gorrotoa. Trakets egiten duen horretan aritzea ez du gogoko, ulertzen ez duenari gaizki iritzi eta kontra egiten dio gogor.

Zapatu goiz batez ulertarazi zion
Aritz Zabalak Garbi Ramosi
zergatik zitzaizkion batuketak
eta kenketak horren nardagarriak.

Ariketez neurtua zuen Aritz Zabalak
Garbi Ramos: «ez nahikoa», «4.000 km»
«goizeko 9etatik arratseko 18etara».
Baina Aritz Zabalak ez du aritmetika hori
lan-indarraz mintzatzeko erabiltzen.

Koldarkeria posibilistatik aztertu du
Garbi Ramosek binomioa, ez zaizkio
kontuak atera. Baiki, Garbi Ramosi
otu zaio maitasuna distantziaz eta
gorotzez inguraturik dela maitasun.

Aritz Zabalaren ondeste blindatua, limoizko ezpaina, du Garbi Ramosek gogoan. Bakarka bizi duen lotsa une honetan ere ez zaio joan txantxa desegokiak egiteko irrika. Izarak zikinduko ditu Garbi Ramosek. Aldi batez Garbi Ramosek berak sortutakoak beteko du Aritz Zabalaren hutsartea.

Damnatio memoriae.

MAITE DUDAN EMAKUMEA

Maite dudan emakume gasteiztarrak
perlazko belarritakoak daramatza
eta Ingalaterrako gorteko fularra.
Bi begi zoli, omoplato fina adats azpian,
jertse arrea eta eskuak besamuturretan.
El Correo irakurtzen du. Ez da
Unidad Alavesa alderdiko probintzianoa,
Partido Popular de Álava bozkatzen du
eta ohe gainean dudan Maiakovski ikusita
«¿De quién es?» galdetu dit eztiro.
Bukaeran agian ez diot «agur!» bat ere esanaraziko,
gaur ez zeukaten *El Mundo* kioskoan
eta Kultura orrietara jaitsi ditu begiak.
Maite dudan emakume irribarretsuak
antologiak irakurtzen ditu gregorianoa entzunez
zango zabalik klitoria hozten zaionean.
«¿Me dejas éste? Te lo devuelvo el martes».

FIDEL NAIZ

Fidel naiz zure gaztetasunaren
mingain naiz zure iluntasunaren
tente naiz zure irribarrearen.

Hitzak etzanda nekazariak zaizkit
eta nahiago ditut zutik
besteen gisara malabarerik gabe.

Atseginkeria ez da doako
herabetasun gabekoon zailtasunean.
Eta guri ere esnætu ostean penisa busti zaigu
eta gurina ogian erre gosarian kafe.

Fidel naiz zure gaztetasunaren
berrogeita bost bete dituzunean.

Nekeza da nortasun-eraikitzea nekeza da
ziurtasuna baduzu hurrengo gudan gorpua izango
zarela
jakin gabe gertukoen urrutikoen zerrendan

edo urrutikoen gertukoenean egongo den zure izena.

Fidel naiz zure emetasunaren eta artasunaren umekeriaren eta gurasokeriaren
nahi duzuna izango naiz
Dritëro Agolli burkideaz hitz egiteari uzten badiozu.

PENTSAMENDU AHULARI JARRIA

Badakit, zuok, ezerezaren
odagile finok, ametsetan
torturatuak zareten artistok
patitzen duzuela sendo
jariorik gabeko oka zimela.

Badakit, zuok, deskribagaitzaren
kronikagile malerusok, musen
esklabotzari eusten diezuen
gudariok sufritzen duzuela
gorotz zurrunak uzkitik
alde egiten didanean
sentitzen dudan hutsune bera.

ATZERRIAREN HEDADURA

Jon Errekalderentzat hedadura zabalegia zuen atzerriak.
Horregatik jaitsi zen trenetik Irunen Hendaian ordez.
Eta tokiko prentsa arrotzez eta beste oximoron batzuez
mikaztuta edan zuen kafea Pasaiako garabiei begira.
«Eta ni zure doako prostituta» jaulki zuen orduan.
Buruan zuen esaldi hura ez zen berea. «Esaldiak
ez dira gureak» esaten zion sarritan Nekane Muruak.

Behinola Nekane Muruari oharpen bat egin zion
Jon Errekaldek: «Euskal Herrian, Errusian legez,
burgesek ez dute haien betekizun historikoa burutu,
eta Leninek etsenplutu zuenez
negar egingo dugu Beethovenen piano sonatekin
kantinako gramofonoak ildoa zeharkatzean».
Nekane Muruak ahuspez errepikatu zuen:
«Burgesek ez dute haien betekizun historikoa burutu

eta guk geuk egin beharko dugu haiek obratu
gabekoa».

«Poesia non eta noiz erabili jakin behar da»
esan ohi zuen Nekane Muruak. Harako egun hartan
ez zion halakorik esan behar izan Jon Errekalderi.
Oso egokia zen Beethoven. Oso egokia zen kantina.
Oso egokia zen gramofonoaren ildoa.

Baina atzerriak hedadura zabalegia zuen Jon
Errekalderentzat. Sutondoa uhinetan aurkitzen zuen.
Goiz hartan Euskadi Irratiko prentsa irakurketa
gurutzatuan Vocento taldeko euskal egunkarietan
bost zutabera albiste bera zetorren. Alegia,
hiru probintziano, kafetegi ia guztietan eskuragarri.
Eta beste oximoron batzuk ere bai.

Jon Errekalderi ez zitzaion
ez goizegi ez beranduegi iruditu.
Hura ez zen lekua ez eta momentua ere.
Pentsa! Besteok ere Santo Domingo azokan
behar genuen ordurako, itsu bati puntuz
eginiko xala nola oparitzen zioten ikusten.

TERRORISTA SUIZIDAK GINEN BIOK BAINA NEUK BAKARRIK LEHERRARAZI DUT NEURE BURUA

Esaten dizutenei gure maitasuna ohiz kanpokoa dela
ohiz kanpoko egoera batean jaio delako
esaiezu, hain zuzen, borrokan ari garela
geurearen moduko maitasun bat
(borrokakideen artekoa)
noizbait El Salvadorreko
maitasunik arruntena izan dadin.

Roque Dalton

Gurea zen zure etxeko hormetan
klarionez zuritu nituen eskuak.
Orain, eskolek —nagoen honek,
egon naizenek eta sortzen saiatuko
naizenek— su har dezaten proposatu dut.

Gurea zen zure etxeko hormetan
nire gorpuzkinak daude erakusgai.
Nire saihets laurdenkatuaren pean
makurtu dituzu belaunak
berriz ere, eta betiko
neure burua desagerraraziko dut.

Nire ondasunak zuretzat.
Irakurri nahi nituzkeen
liburuen bibliografia da daukadana.

Joanen naizenean, erakutsi dizkizudan
hirietako planoak disekatuko dituzu hormetan,
nire marrazkiekin baldosak dekoratuko.

Kaleen kartografia zendutakoaren takigrafia da.
Oso ilustratua da Joseph Roth baina ez du
gaur egungo Rosa-Luxemburg-Platz geltoki inguruan
bizitzeko baliozko datu funtsezkorik ematen.

Gurea zen zure etxeko hormetan
nire gorpuzkinak daude erakusgai.
Leherketaren hondarrekin apaindu zara.
Ez dakit gerririk aurkituko dudan

tinta estilografikoz jantzi nahiko duenik.
Egun hori itxaroten dudan honetan
Gutrune gurtuko dut, belarriak zorrozten
dizkizuela dialektika eta diapasoiaz,
mundu emankorrean Attila Baader egin
nazan, behin eta berriz hutsik diren
autobusekin batera geure buruak zartatuz.

Bake beroan
gerra hotzean
baino okerrago
eta garestiago
jaten dugulako.

NI NEU NAIZ
NIRE AUKERA KASKARRENA

Ni neu izango naiz nire aukera kaskarrena.
Ez naute balaz josiko kotxean noala.
Jacques Mesrine hil dute. Robert Broussard-ek zuzendu du operazioa. Zuzenean tirokatua, ezin izan ditu aulki azpiko granadak erabili. Sylvia Jeanjacquot bikotekidea zauritu dute. Ileorde gorrixka zeraman, bere urtebetetzea zen. Senarra exekutatu dute. Irudiak ikusi ditugu. Hildakoari aurpegia ere desegin diote balek, segurtasun uhalak eusten du gorpua. «Berpizkunde italiarreko pietà bat dirudi» esan du idazleak. «Miragarria da» esan du idazleak, horrorea dela, baina gaur egun pentsaezina dela 1979an bezala heriotza hala erakustea. «Basurde bat bezala» esan du.
Ez naute harrikatuko hil arte.

Esan nizun zerbait esan duzu. Horrek poztu
edo tristatu behar nindukeen zalantza dut.
Ez dut zu ukitzeko beharrik, zu ni zarelako.
«du selbst bin ich»
Ez zegoelako pluralik gure lehen pertsonan
elkar inguratzen ginelako hitzen beharrik gabe.

Ni neu
erabat ez sendatzeaz arduratzen den botika
zauriak mantentzeko ukendu
zoramena kroniko egiten duen terapia.
Zure begi handientzat ez naiz izango bizidun
zure hatz finentzat izango naiz okel.

Txalo zinikoak jasoko dituzte nire gorpuzkinek
«gu ere mediokreak gara—egingo duzue otoitz—
guk ere ez dugu eman behar genuen
guztia, ohean gelditu gara hitzordura
berandu iristeko, zikindu dugu haziz
eta uzkiz aurpegia».

Begirada lohia duzuenez zuek ere ez duzue
izan bularrik eraildako lapurrak zinetenean
ukabilak hertsirik bakarrik utzi zaituztete

autonomiaren eraikitzean.
Askatasuna ez da jaioberria zazpigarrenetik
askatzea euriak umetokiaren
arrastoak garbitzen dizkiola. Bizitza
zer den ezagutuko du azkenik. Ez dut
pubiseko zilbor-hestea moztuko tente
gelditukо naiz zure barruan ez nauzu
balkoitik behera botako nire jatorria
zu zarelako alua.

Ez dut nahi nire gorpuzkin osasuntsuek
beste pertsonarik salba dezaten,
ez dut dohaintzarik egingo hil nahi dudalako,
ez dut sugarretan hauts izan nahi,
sentitu nahi dut naturak oparitzen didan
desagertzeko bide luzea. Kimika hutsa da:
usteldu egiten naiz eskatzen didazunean
malkoak atxikitzeko.
Ez zenuke ileorderik jantziko.

KOMUNAREN LURRALDETASUNA

Lurraldetasunarekin
oso eskuzabala izaten ari naiz.
Eta zu ez zara soilik
komisario politiko bat,
badakit.

Komun zikin hau
bilo bilduma bat baino gehiago da.
Hemen ikasi nuen
burusoiltasuna onartzen.
Hemen dastatu zenituzten
menopausiaren zurikeriak.
Eta nire itsustasuna
gerrian metatutako gantza
eta aurpegiko pikorrak
baino egiturazkoagoa da.

Defentsa eskubidea ez da aukeretarik bat.
Eta Gandhi
oso bortitza zen,

hilik ere izutu egiten nau,
haren aldean katakumea da Dzierzynski.
Eremua ez da suntsitzen ahal
bolborarik gabe,
ezin da olerki hau erre
artezilariekin.

N ANDREAREN ZERBITZUAK

N andreak ideiatxoak izaten ditu
eta papertxoetan idaztea du gogoko.
Hala ere jabetzen da sarri galtzen
dituela edonon idatzitako oharrak,
eta horrek zaildu egiten du
bere pentsamendua garatzea.

N andreak beste bi andreren etxeetako
gorotz-estoldak garbitzen ditu:
bitrozeramikak, pasabideetako markoak,
ohean dauden gurasoen beso-soin arteak,
ipurmasail-artea eta behatz-arteak.

Mendebaldeko prentsan diotenez
(*El Correo, Deia, Goienkaria*)
prostituta da N andrea, ez ofizioz
baizik eta afizioz. N andreak ez ditu
informaziook ez baieztatu ez ukatu.

N andrearen zerbitzuak jasotzen dituzten beste-bi-andre horiek oso ezberdinak dira. Batek ez daki zapatistak nork diren eta bestea erabat ados dago zapatistekin. Bat ezkerrekoa da eta, deskartez, bestea eskuinekoa. Baina N andreari berdin ordaintzen diote biek hilaren amaieran. Eta gaixotzen bada edo jaieguna bada dirurik gabe gelditzen da berdin biekin. Gauza batek egiten du okerragoa beste-andre-ezkertiarra: errukiz begiratzen dio N andreari eta irudi luke laguna izan nahi duela. Aitzitik, beste-andre-eskuindarrak mespretxuz begiratzen dio N andreari eta horrek erosoagoa bilakatzen du giroa. «Gorotza dena izan bedi gorotz gisa tratatua» pentsatu eta ohartxoa idatzi du N andreak.

N andreak badaki bere lanak balio duena baino gutxiago jasotzen duela beste-andreengandik. Hori nolabait orekatzeko, lixiba eta plastikozko eskularruak lapurtzen dizkie beste-bi-andreei.

N andreak Bogotatik etorri zenean uste zuen
lixiba eta plastikozko eskularruena
besterik ezingo zuela egin Gasteizen
(Bogotan egiten zuen berbera, bide batez esanda).
Baina zorionez N andrea harremanetan dago
J andrearekin eta honen labanen keinuekin.

INTERLUDIOA

BETAURREKO BERRIAK

Gaur Mendia Optika desde 1856az gero
dendan betaurreko berriak erosi ditut.
Gaur maitemindu egin naiz optikariarekin.

—Hola, buenos días —euskarazko erantzuna
espero duzun lekuan espainolezko erantzuna
jasotzea autoestimuarentzako kolpe latza izan ohi
da.
Espektatiba linguistikoen zerumuga zapuzten da.
Euskaraz jarraitu dut badaezpada ere:
—Kaixo, betaurreko berriak nahi ditut.
—Bai, zoaz gora, han egingo dizute graduazioa.
Gora igo naiz eta behean bezalaxe esan diot:
—Kaixo, betaurreko berriak nahi ditut.
—He entendido lo que me acabas de decir, pero...
—Ados. Espainolez hitz egingo dugu —esan diot.

Hasier Etxeberriak duela hamahiru urte
Txillardegiri buruz egindako dokumentala
ikusi nuen bart arratsean ordenagailuan.

—Milesker —esan dit, espainolez egingo dugulako.
—Betaurrekoak graduatzera nator —nik espainolez.
Paparrera begiratu diot. MARTA jartzen du txartelean.
Galdera batzuk egin dizkit Martak. Adibidez:
—Noizbait eraman izan dituzu betaurrekoak?
Gero agindu eta ohartarazpen batzuk:
—Eseri hemen. Begiratu hona. Orain
puxika bat ikusiko duzu. Orain argi berde bat.
Aire talka bat sentituko duzu, ez kezkatu,
segituan joango zaizu sentipen arraro hori;
begiaren tentsioa neurtzeko besterik ez da.

Ondoren hizki batzuk esanarazi dizkit.
O eta D letrak nahastu egin ditut, noski.
Dioptria zaharren eta berrien artean
ez omen dago alde handirik, bost urtetan
oso gutxi egin du okerrera ikusmenak.
Baina nik betaurreko berriak nahi nituen,
hori zen erosketa egiteko arrazoi bakarra.

Orain arte nuen ikusteko disfuntzioan
oreka aldaketa bat gertatu da.
Baldarrenaren papera trukatu dute begiek.
Neukan zalantza argitu dit Martak:

—Ez da egia, miopiaren kasuetan,
leiarren erabilerak arazoa larriagotzen duena.

Txillardegik dokumentalean esaten zuen
frankismoan demografia jario handia
jasan zuela Euskal Herriak.
Espainiarren migrazioa komeni zitzaien
frankistei helburu politikoengatik eta
euskal burgesek etekin ekonomikoa
atera zuten jende olde haren
lan-indar ez kualifikatuari esker.
«Orain Estoniako populazioaren erdia
errusiarra da» esan zuen Txillardegik.

Orduan sentitu dut kolono batek
azpiratzen ninduela (Marta maiteak, alegia)
baina horrek ez du eten bulkada
ezta adats perfektuaren ondulazioa ere.
Txillardegik baleki!
—Bat hogeita bost duzu eskuinean.
Gidatzeko jantzi egin beharko dituzu.

Orduan sentitu dut kolono bati esker
ikusiko dudala hobeto eta nire begi-higienea

zalantza barik kolono bati esker
hobetuko dela. Ez al da nardagarria?
Maitasun proiektu bat hobe enfokatzeko
tresna bihur daitekeela otu zait.
Ordura arte uste nuen maitasun proiektua
histrionismoa elikatzeko talaia zela.

—Orain betaurrekoak hautatuko ditugu.
Eskaileretan behera jaitsi gara.
—Baduzu modeloren bat pentsatuta?
—Pasta beltzekoak, handiak nahi ditut.
—Aterako dizkizut batzuk —eta atera dizkit.
—Karratuxeagoak nahi nituzke.
Orduan atera dizkit Danimarkan egindakoak.
Eta akordatu naiz Bertolt Brechten
artisten eginkizunari buruzko testuak eta
Walter Benjaminekin izan zituen elkarrizketak
Danimarkako erbestean jazo zirela.

Ez dut zalantzarik egin:
—Hauek dira —esan diot.
—Oso modernoak dira.
Uste dut Martak esan nahi zuela politak direla.
—Itxoin beste batzuk erakutsiko dizkizut.

Baina ez zaizkit gustatu. Eta esan diot:
—Badakit objektu gisa ederrak direla,
baina ez dakit ondo ematen ote didaten.
—Oso ondo dauzkazu. Lehen bagenuen afixa bat
Eduardo Noriegarekin, hain justu modelo honekin
eta zurea bezalako bizarrarekin.

Ez dut ulertu Eduardo Noriegak
zer esan nahi ote zuen Martarentzat.
Gainera dirua tarteko dagoen harremanak
estrainioak eta xelebreak izaten dira berez,
baina Iberdrola Dorrea geureganatu arte
dirua tarteko da gure harreman guztietan;
beraz, horregatik, ez dut zertan arduratu
kasu honetan ere dirua tarteko dagoelako.
Kontua da, Eduardo Noriegarena
esan duenean, ez diodala Martari
aitortu nahi izan gustatuko litzaidakeen eredua
Hönecker Xostakovitx Etxebarrieta Cardenal dela.

Fitxa bat bete du enkargua egiteko.
—Hauek nahiago ditut, ez dutelako apaingarririk.
Apaingarriekin lehenago zahartzen dira
objektuak —esan diot. Hildako nire amonaren

teoria bat zen. Nire amonak, ziur naiz,
ez luke nahi kolono batekin esposa nadin.
—Astearterako izango dituzu —abisatu dit.

Egoerari amaiera eman diogu.
—Agur —esan dit euskaraz.
Txillardegik kolonoei buruz hitz egiten zuenean
oskolezko betaurreko marroi-laranjak zeramatzan.
Oskolezko betaurreko marroi-laranjak zeuden
erakusleihoan nobedade gisa estrategikoki kokatuta.
Baina nik nahiago ditut, askogatik, Cardenal
burkidearen betaurrekoak. Uste osoa dut
betaurrekoen azken bataila pastazko
betaurreko beltzen eta oskolezko betaurreko
marroi-laranjen artekoa izango dela.
Gainera Hasier Etxeberriaren dokumentalean
Txillardegik Josu Muguruzari laudorio egitearren
esan zuen ez zegoela jakiterik Muguruza
marxista-leninista ote zen edo ez. Eta hori
ez zitzaidan inolako laudorioa iruditu
Muguruza bezalako marxista-leninista batentzat.

Horregatik hautatu ditut zalantza zipitzik
gabeko marxista-leninisten betaurrekoak.

Nahikoa zabalak, erosoak, konplexuak,
kontraesankorrak eta anitzak dira
pastazko betaurreko beltzak.

Gaur betaurreko berriak erosi ditut.
Gaur maitemindu egin naiz kolono batekin.

BI

HAU EZ DA ALIANTZA TAKTIKOA

Jomugan zaituztegu,
zibilizazioen eta herrien arteko
guden sustatzaile erreboltariak!

Elkarren etsai garela antzeztu dugu
eta hala izan ez dela dioenak
osteratxoa egingo du epaitegira
adierazpen errebisionista egiteagatik.

Ez dugu geure jokoa ulertu nahi izan:
batzuek garagardoa hatsean eta besteek kafea,
batzuen freskagarria besteen ron-kola.
Beltzez estaltzen dugu lepo gainekoa batzuek,
lurrin eta makillajez apaintzen duzue besteek.

Geure buruetan dagoena ikusten duzuenez
ez dugu ezer ulertzeko ahaleginik egin,
jakin ez zenezaten azken unera arte egingo
genuena.
Irrati formulak entzuten ditugu eta

piraten uhin enkriptatuek xehatzen dizkigute hitzak,
dubstep epileptikoekin zapaltzen dugu mahatsa
eta bizarra egiten digute harizko laukoteek.

Begi-puntuan zaituztegu,
pedantekeriaren aurkako populistak!

[A-ANTI-ANTIGAFAPASTISTAK!]

Duela hogei mende San Jose plaza habitatzen
genuenok
edo duela hogei minutu heldu garenok
berdin egiten dugu garrasi,
700-euristen eskuez sakelakoetako dezibelioetan
rap azpiproletario yankeea entzutea laket dugu.

Pedofiloak gara. Eta gerontofiloak.
Gurtu egiten ditugu poligamo asexualok:
Malcolm eta Maradona,
Keny eta Karl,
Dj Msn eta Manfred Mann.

[EZ DUGU PASTEL ZATI BAT NAHI,
PASTELDEGI OSOA NAHI DUGU!]

Hau ez da aliantza taktikoa,
talde bera dugu osatzen.
Zelula bakoitzean haragitzen ditugu
abangoardia eta erretagoardia:
koadroak gara, liderrak eta ardiak;
dominatzaileak eta dominatuak.
Berdin janzten gara, baina ez
ezberdin izan nahiaren dinamikak
puntu berera helarazi gaituelako;
aurrekontuak eta konbikzioak batu gaitu,
burua estaltzeko daramagu kaputxa
eta izerditan gaude kapusaiaren azpian.

Zerrendan zaudete,
hiperklasetarrak eta 3.000-euristak!

Eta paperetan egotearen beldur dena ere
trenean sartuko da: Maximilien da gurekin.
Zerbitzariak, komun garbitzaileak,
maisu-maistrak, arratoiak gara. Eta katuak.

PSIKOLOGOA ETA POETA ETA PERTUR

Ogitartekoetan camembertari azala kentzen ez dioten Hendaiako bistro batetik irten da Amaia Martinez eta bere kolkorako esan du: «Zergatik idazten ditut oharrak liburuetan? Zergatik azpimarratu? Hobe analizatzeko edo egoa gorago kokatzeko egiten dut? Autore handien lanetan paratzen dut arkatza. Zer adierazi nahi ote du jokaera honek?».

Amaia Martinezek hauxe hautatu du orain:

| Voilà deux numéros du *Nouveau Monde* de 1948. Dans le numéro deux, j'ai publié un article, «Le réalisme socialiste et l'époque actuelle». C'est le premier article sur le réalisme socialiste. Hé, hé !

| On peut dire que c'est moi qui l'ai introduit dans notre pays, dit-il avec un gros rire qui s'efforçait de donner à ses paroles une couleur de plaisanterie.

|
Alboan marra bat egin du eta
marraren gainean idatzi du: «Adanismoa».

Amaia Martinezek egunkaria erosi du
tren-geltokiko kioskoan. Otu zaio:
«Gaixoa kroniko bilakatuko duen
sendagaia eman dio Psikologoak.
Eta malerus kroniko egingo duen
zaborra idatziko du Poetak».
Amaia Martinez poeta bat irakurtzen ari da,
baina poetaren liburua nobela bat da.

Eta honela jarraitu du Amaia Martinezek:
«Psikologoa eta Poeta, biak dira tranpatiak.
Euren jokoaren arauak asmatu dituzte
baina poeta ez da hilaren amaierara helduko
eta psikologoak xanpainaz poteatuko du
Irungo kaleetan, heroi-martiri bihurtu aurretik».

Amaia Martinez etxean sartu da.
Haritz Ansorenak abisatu dio:
«Purea dago». Hotz dago purea.
«Berdin da» pentsatu du Amaia Martinezek

eta ordenagailu aurrean eserita jan du,
liburuko pasarte hautatua kopiatu bitartean.

Ehun eta seigarren orrian jartzen du:

| Demkë pense que, même ici, au milieu de la fête, je suis son chef. Ici nous sommes tous égaux. Nous n’avons ni chefs ni supérieurs. Moi, même dans le travail, je n’écrase pas les gens, je les laisse créer, je respecte leur pensée. Toi, Demkë, tu as dans l'idée de boire, montre-le.

Alboan marra bat egin du eta
marraren gainean idatzi du:
«Populismo kastratzailea,
inauteriaren gezurra».

Amaia Martinez ez dago ondo.
Konturatuta baitago jakintza
tresna bereganatzea dela
eta ez pasartea kontrolpean izatea.
Ordenagailuko artxibategi batean
giltza-hitzen bidez gorde du
bere armategiko pasarte oro.

Purea goxoago dago hotz.

Amaia Martinez azkenean
zalantza egiten hasi da
memoria arazoak dituen edo ez.

HARATEGIKO SOLASALDIA

Musika talde bat zeukan OD biolinistak.
*Iruñerriko Hitza*k egin zion elkarrizketa
bateko galderari honela erantzun zion:
«Zuzenean jotzeko diskoa atera dugu».
Asteazken batez SP publizista Iruñean zegoen,
OD biolinista euskaldunaren jaioterrian.
SP publizistak OD biolinista
harategian ikusi eta galdetu zion:
«Zertarako atera duzue diskoa
zuzenean jotzeko baldin bada?».

SP publizistak ez zion beste galderarik egin.
Bazuen musikarien gaineko beste zalantza bat,
baina OD biolinistak biolina jotzen zuen
eta ez gitarra elektrikoa. SP publizistak, beraz,
gitarra elektrikoa jo eta errezitaldi amaieran
gitarra hondatu, apurtu edo sokak askatzeko
joera zuen birtuosoarekin mintzatzea nahiago zuen.
SP publizistak argi zeukan, gitarra elektrikoak
modu hartan hondatuta apurtzen zen bakarra

gitarra elektrikoa bera zela eta, akaso,
mesede ere egiten zitzaiela indar atzerakoien
eta gobernantzia mundialaren aldeko agenteei.

SP publizistak ez zuen txerrikirik erosi.
OD biolinistak ere ez zuen txerrikirik erosi.

MAITEMINEZ HILTZEA

Arroza egitean
apurka bota behar da ura
aleak ito gabe irents dezan.

Maitasunean
hazi guztia jario behar da
maitaleak ezin dezan
dena irentsi: ito dadin.

Entzuten dudanean
norbait maiteminez hil dela
sinusitisa duen eta ahoa espermaz
bete dioten koitadua irudikatzen dut.

GAURKO AFARIA

Langileak, bakarka, nire atsegin guztia du.
Ez dagokion horretan parte hartu eta matxinatzen denean, ordea, esaten diot: geldi hor, anai-arreba, ez duzu arrazoirik. Langilea zara, beraz lanera. Greban bazaude eta lanik ez baduzu egiten, jada ez zara langilea, tipo arriskutsu bat baizik.

ARTURO UI

Bada jendea uste duena hondamendia dela ETA(m)ren ekintza armatuak bukatu izana bizkartzainak langabeziara joanen direlako. Frantzian 1946an Poloniarako eremuetara zihoazen tren-gidarien desagerpenak langabezia igoko zuelako kezkatu zen jende bera da.

Bada jendea kexatu dena EHUn irakasleek tutoretza orduetan inbertitzen duten denbora neurtzeko sistema instalatu dutelako.
Duela lau urte atezain, informatikari eta fakultateko langile teknikoentzat sistema bera instalatu zutenean kexatu ez zen jende bera da.

Bada jende diruduna egunkarietako zutabeetan beheko klasearentzat idazten duela dioena. 1872an Eskoziako oihal-fabriketako umeei gauez zopa ematen zien jende bera da —egunez goikoentzat jertseak egiten hil ez zitezen elikatzen zituzten—.

Bada jendea sumintzen dena ETA(m)k Benjamin Atutxa jaun sozialdemokrata erail nahi omen zuelako. Benjamin Atutxak enpresa pribatuak sustatu behar direla, funtzionarioen kopurua gutxitu behar dela eta *de facto* milaka langile euskaldunen bizitza itxaropena hamar urte jaitsi behar dela dioenean txalotzen duen ia jende bera da.

«Murrizketak egin behar dira» esan du Benjamin Atutxak. Eta gero jarraian: «Abiadura Handiko Trena egin behar da». Txalo egin dio trenaz baliatuko den jendeak. Herritarren ehuneko laurogeita hemeretziak ezingo duela erabili dakien jende bera da.

Bada jendea egongelako leihoa ixten duena
kalean grebalariek, langabeek edo prekarioek
txistu eta karranka egiten dutelako
kontsignak eta exijentziak aldarrikatzen.
Eta egongelako jendeak pentsatzen du
«astunak» edo «betikoak» direla.
Ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan
jatetxe eta dantzalekuak garrasi hanpatuekin
leporaino betetzen dituen jende bera da.

Horixe da gaurko afarira etorriko ez den jendea,
ordurako ahoa belarrez beteta izango duelako
Marcelino Orejak izan zuen bezala.

BERTSIO HOBETUA

Garbi Ramosek Txagorritxuko sendategiko
gaueko merkataritzan ezagutu zuen Aritz Zabala.
Garbi Ramosek ipuin bat osatzeko
ezaugarri egokia topatu zuen Aritz Zabalarengan.
Aritz Zabalari zupada batzuk egingo zizkion
aho aproposa iruditu zitzaion Garbi Ramosena.

Etxarri-Aranatzeko tren geltokira heldu aurrez
ardiak ikustean, Aritz Zabalak Garbi Ramosi
«Badakizu nolakoa naizen» esaldiaren bertsio
hobetua
jaurti zion: «Bazenekien nolakoa naizen».
Sikiera «Bazenekien nolakoa nintzen» esan izan
balio
Garbi Ramosek aukera izango zukeen hura
aldatzeko,
edo horretarako aukera historikoa sortzeko.

Garbi Ramosek ez du egoarekin ezer aldarrikatzen,
ezer konpondu nahi ez duelako. Ramosek
Zabalarekin

batasun zorrotza eratu nahi zuen, mina ulertzeko tresna izan zedila Zabala-Ramos unitatea, plazera ekoiztu eta mantentzeko heldutasun etenkaria izan zezala.

Zabala-Ramos unitateak Zabala independentearen bertsio hobetua, argudiatua, minik gabekoa eraikitzeko balio izan zuen soilik. Amak elikagaia igortzen jarraitu zuen zilbor-heste ebakitik.

Zabala bere alboan gelditzera behartu nahi luke Zabalak Ramos beltza dela ikusteko gaitasuna balu.

GAUR GOIZEKO POEMA SAIALDIAREN KONTAKETA ZEHATZA

Gaurko goizaren lehen zatia nahiko antzua izan da.
Dinamika intimista batean sartuta egon naiz.
Soinuaren inguruko sasi-gogoetak idatzi ditut.

Goiza aurrera joan ahala katalanek ele geminatua
adierazteko duten sinboloa esaldien hasieran
kokatzea
bururatu zait. Kortxetearen okurrentzia gauzatu
nuenetik
egindako berreskuratze tipografiko
azpimarragarriena.

1. adib.:
antza jazza da inprobisazioaren *crême de la*
flemme

Oso elementu erabilgarria iruditu zait baina agian
ez da

gaurko ekoizpenerako elementu erabilgarri
egokiena.

Gero objektu desiratu baten eta
musika-tresna ezberdinen arteko
konbinaketa bat eratu dut.
Erdian lerratu dut ezkerrean lerratu beharrean.
Nerabeen baliabide ohikoa da
erdian lerratzearena eta horrela
poema gaztetuko nuen esperantza izan dut.

Komatxo latinoak jarri dizkiot garbi gera dadin
norbaitek ozen dioen zati bat dela.

2. adib.:
«Ezin dut zure aurpegia ikusi
bibrafonoa jantzita duzu.
Honek zentzurik ez duelako
merezi du jarrai dezagun.
Arriskurik gabe ez dut parte
hartuko
gure zabor kitzikagarri honetan»

Ondoren bururatu zait kortxeteekin sartu ohi dudan
V-Effekt erako afixa brechtar bat jartzea

adierazteko erdian lerratutako unitate oro (bio)gizon-(bio)emakumeen adin piramideen antzera irakurri behar dela.

3. adib.:

[ADIN PIRAMIDEAK BEZALA IRAKURRI ERDIAN LERRATUTAKO AHAPALDIAK]

Lehenengo (*1. adib.*) eta bigarren (*2. adib.*) adibideetako soinuaren gaineko gogoetak estetikoegiak iruditu zaizkit
eta gogoeta espazial bat egitea bururatu zait.

Pozik nengoen erdian lerratzean sortutako afixa brechtiarrarekin eta erdian lerratzen jarraitzea erabaki dut. Nahiz eta, ziurrenik, ezkerrean lerratuta
hobe geldituko litzatekeen gogoeta espaziala.

4. adib.:

Bada erdigunearekiko obsesioa,

«alderdia zentrora ekarri dugu»

edo

«gu geu izan behar gara ekoizten dugunaren erdigune»

entzuten da sarri.

Erdigunearen zentroa.

Argi dut zure periferian diren ahoak maite ditudala.
Zure hesteez, zainez, birikez, burmuinez ez dut ezer jakin nahi.

Gogoaserik nintzen. Erdian lerratzearen baliabide teknikoak ideia bat plastikoagoa egiteko aukera eman dit.

Hala ere kontrapuntu politikoa falta zitzaion. Kontrapuntu politikorik gabe poemak ez zukeen autozentsuraren zigilua zauritu gabe pasako.

Orduan gertakizun historiko klasiko batera jotzea erabaki dut. Errumaniako sozialismo errealaren aurkako altxamenduaren inguruko anekdota bat erabiltzea otu zait.

5. adib.:

Indar kontra-iraultzaileek

Alemaniako Errepublika Demokratikoaren edo
Errumaniako Herri Errepublikaren erorialdia
ospatzeko
gobernuaren bandera zaharrak hartu eta
erdiko armarri komunistak mozten zituzten.
Banderak zulatuta gelditzen ziren.
Alemaniako eta Errumaniako banderetan
nik guztiz kontrakoa egingo nuke.
Atzeko gorria, urdina eta horia bost axola zaizkit
niri,
poste elektrikoak, konpasak, garia,
mailua eta izar gorriak nahi ditut.

Bistan zen bosgarren adibideko (*5. adib.*) mezua kontraesankorra izan zitekeela laugarren adibidean (*4. adib.*) esandakoak esanda eta horregatik bertso gehigarriak jarri dizkiot sekzio berari:

6. adib.:
Baina banderaren erdigunea eta zure periferia
nahi izatea
ez da kontraesan antitetikoa. Ez du ezertan
aldatzen
esan berri dudana.

Badaezpada berriz esango dut.
Argi dut zure periferian diren ahoak maite ditudala.
Zure hesteez, zainez, birikez, burmuinez ez dut ezer jakin nahi.

Ordurako hamabiak eta laurden ziren,
dilistak ez nituen prest, ogia ez nuen erosia,
mopa pasa gabe zegoen eta ikuzgailuan
ordubete zeraman arropa garbia
usain txarra hartzen ari zen.

Azkenean olerkia bukatutzat jo dut.
Hala gelditu da olerki zirriborroa:

PERIFERIA
[ADIN PIRAMIDEAK BEZALA IRAKURRI ERDIAN LERRATUTAKO AHAPALDIAK]

Bada erdigunearekiko obsesioa,
«alderdia zentrora ekarri dugu»
edo
«gu geu izan behar gara ekoizten dugunaren erdigune»

entzuten da sarri.

Erdigunearen zentroa.

Nik argi dut zure periferian diren ahoak maite
ditudala.
Zure hesteez, zainez, birikez, burmuinez
ez dut ezer jakin nahi.

Indar kontra-iraultzaileek
Alemaniako Errepublika Demokratikoaren
edo
Errumaniako Herri Errepublikaren erorialdia
ospatzeko
gobernuaren bandera zaharrak hartu eta
erdiko armarri komunistak mozten
zituzten.
Banderak zulatuta gelditzen ziren.
Alemaniako eta Errumaniako banderetan
nik guztiz kontrakoa egingo nuke.
Atzeko gorria, urdina eta horia bost axola
zaizkit niri,
poste elektrikoak, konpasak, garia,
mailua eta izar gorriak nahi ditut.

Baina banderaren erdigunea
eta zure periferia nahi izatea
ez da kontraesan antitetikoa.
Ez du ezertan aldatzen
esan berri dudana.

Badaezpada berriz esango dut.
Argi dut zure periferian diren ahoak maite
ditudala.
Zure hesteez, zainez, birikez, burmuinez
ez dut ezer jakin nahi.

Ez naiz erabat ziur gelditu.
Autozentsoreari bidali aurretik bihar goizean
birpasatuko ditut ostera bertsook.
Arias burkideak dio
lehenengo bulkadaz mesfidati izan behar dugula
eta nik osoki estimatzen ditut
Arias burkideak ematen dizkigun argibideak.

HIRIAK MAITE DITUT

Diotsudanean hiriak maite ditudala
ari naiz aldizka azaltzen diren zebrabideez
eta antzokiko beheko jarlekuez,
eta crustaz, raveez eta piano boskoteez.

Maite ditudan hitzak,
soinuak eta ideiak han jaio dira
—eta hori identitate afera honetan ez da absurdua—
zu ere hirian jaiotakoa zara
gu ere hirian sortu eta hazi ginen.

Ari natzaizu ilunabarrean balkoian
xurgatzen duzun zigarretaz eta
askatasunaz, berdintasunaz eta anaitasunaz.
Diotsudanean hiriak maite ditudala
oroitarazten didazu Mussolini;
halere iruditzen zait *Novecento* filmeko Attila
eta alkandora beltzak ez direla psikiatriarekin
lotu behar baizik eta ekonomiarekin.

Zura ere nahiago dut herrietako
hezetasun, aire garbi, ogi goxo,
paraje eder eta izara zuriak baino,
tolerantzia eta etxeko marmelada baino,
eta ez naiz bereziki arte poveraren maitalea,
ezta anti-estetikaren jarraitzaile sutsua ere.

Nahi dut karbonoaren zikloa egiten digun euriak
ilea jan diezagun Javik mikrofonoari
txistu egin dionean ilunpe borondatezkoan.
Tximiniak eta zu, izkinetako zabor poltsetan.
Razzia polizialekin.
Boskote batek ostiral gauetako iraultza
Wotan jainkoaren makilako sinboloak dituen
arropa denda jipoitzearekin lotzen duenean.
Polizia militarren —eta haien senideen—
aldeko masakreak sustatzen dituzten arkitektoekin.
Eros daitekeen sexuarekin.
Trafikatzen diren arroz edukiontziekin.
Diotsudanean hiriak maite ditudala amiantozko
kaiola herdoilduari buruz ari natzaizu.

JASATEN EZ DITUDAN ELKARRIZKETAK

Hiru urtez denbora galtzen egon nintzen.
Haragia eta hezurra izan nahi nuen, niretzat
haragia eta hezurra izan nahi zuen norbaitentzat.
Inpase batean sartu nintzen L andereñoak ez
zuelako
egitasmo fisiko eta emoziozko bat izan nahi nirekin
eta P andereñoak ez zuelako inolako gogorik
egitasmo fisiko eta emoziozkorik abiatzeko.

Egoera halakoxea zela, lantzean behin
beste andereñoren batekin elkartzen nintzen,
errealitate epidermiko eta mental ezberdinekin
frogak egiteak zer sentiarazten zidan probatzearren.

Jasanezinak ziren, Xostakovitxen sinfonia bat
entzuten ari den tanke gidari negartia bezalakoak.
Askotan esan zidaten: «Orain bizitzako puntu
batean nago zeinetan...». Fase hitza ere maiz
errepikatzen zuten, politikoek esan ohi dituztenak
kafetegi mahaietan mimetizatzen direla berretsirik.

«Ni lehen _____lakoa nintzen, baina _____ gertatu zitzaidan eta ordutik _____lakoa naiz» bezalako formulazioen zaleak ziren andereñoak. Munduan zuten instalazio poetiko berezi eta ezberdina azpimarratzearren, kapazak ziren gertuko senide baten gaixotasuna erabiltzeko.

Antzezpen bat egiten zidaten, baina nik ez nuen ikusle izan nahi, amaieran txalo egitera behartuta banengoen. Munduan zehar egondako lekuen zerrenda egiten zidaten, batzuetan grafikoki ilustratzen zuten teknologia berriak erabiliz. Edo sekulako gorrotoa diedan erakundeen karitateari esker hona edo hara lan inutil bat egitera joan nahi zutela esplikatzen zidaten.

Seko aspertzen nindutenez, neure buruarekin haserretzen nintzen: denbora galtzeagatik eta espektatibak eta desirak zapuzteagatik.

Mundu ordenaketa anker batean arrakasta izateagatik harrotzea tristea iruditzen zait. Baina noizbait izango omen duten arrakasta profesionalagatik

gehiagotasun ukaezina aho betean adieraztea harridura handia sortzen didan fenomenoa da.

ARROBATZAILEA

—May I see your driver’s licence please?
Ez da galdera bat, ez da eskari bat, baina
lotura estua du gidaritza eta baimenarekin.
—May I see your driver’s licence please?
Begien bistakoa da jazarpena.
]Coolidge et Cameron même Combat![
—May I see your driver’s licence please?
Nola utzi karaktere manikeoak errenkan ekoizteari.
Pathosak garaitu gaitu, ikerketarako astirik ez ia,
hartu blue-jeanak eta xurgagailua eta ospa egin,
blue-jeanik gabe, xurgagailurik gabe ez zara inor,
ahaztu eskola, komisaria edo meskita erretzea.
Hartu blue-jeanak eta xurgagailua eta ospa egin!

—Harritu egin al zintuen bart gauean ikusitakoak?
—Ez noski, urte asko dira Londresen bizi naizela.
—Baina gaitzetsi egiten al duzu?
Con/DemNation-en bizi omen da Mark Duggan
eta zalantzan jartzen du Alain Badiouren ekuazioa:
«Proiekturik gabeko suntsiketa
baieztapenik gabeko ezeztapena da».

Ez. Zera. Baina.
Ez dakizue zer den blue-jeanik gabe deus ez izatea.
Mark Dugganek ez die zakur amorratuei
berorika egingo, ez baitaki horrela jarduten.
Horregatik egiten die zuka 3.000-euristei.
Eta nahi du gorbatak edo galoiak jantzi ditzazuen.
Mark Dugganek badaki bizkarroiak nortzuk zareten
baina zuek zeuen kabuz jakin dezazuen nahi du.

SOZIALISMO ERREALA

M langabeak kapitalismoan
izan zuen aurreko bikotekidea.
Krisiek indartzen zuten harremana,
krisiek iragartzen zituzten ziklo berriak,
bazekiten kudeatzen eta hitzarmenak negoziatzen.

L kontablearekin sozialismo erreala bizi izan du:
egonkortasuna, premia gutxienekoen ziurtatzea,
nudismoa, pilula antisorgailua, gizarte berdintasuna,
kultura doan, garraio publikoak prezio neurritsuan,
trikimailurik gabeko hauteskundeen zoramenik ez.
Argi zegoen hautua: M-k L. L-k M.

L kontablearen aurreko proiektua zutitu
egiten zen faxismo bakoitzaren ostean.
Baina urte batzuk igarota, Perestroika eta gero
ez dago perspektibarik, ez dute herentziarik:
debekatuta zuten masa berdinzalearen onerako.
Zahartuta eta maiztuta geratu zaizkie jantziak ere.

M langabeak ez du L kontablea pizten
berrikuntzarik gabeko orrazkerarekin.
Lehen primerakoa zen nahikotasunez eta
apaltasunez bizitzea. Orain ordea, harresia
zeharkatu orduko 100 markoak nahi dituzte
eta eder sentitu. Halaxe esan ohi dute:
«Gizakiak berezkoa du berekoitasuna».
Hurkoa baino gehiago izan nahi dute,
gehiago izateko eskubidea aldarrikatu,
elikagaien trafiko legalaren zurrunbiloan jardun.

Sozialismo errealean bizi izandako
M langabearen eta L kontablearen
bizimodua akabatu egin du
kapitalismoa berpizten duen krisiak.
Bandera zulodun baten truke
saldu dute sozialismo erreala.
Gaur egun hipotesi bat dira, ez dute besterik,
urrutiko sozialismoei egiten diete gorazarre
—*zenbat eta urrunago hobe* dio Filosofoak—.

Merkatu lobotomiak badu konponbidea,
baina M-k eta L-k ez. Eta hala ere
M-k sozialismoa egin nahi du L-rekin.

Irreala edo magnetikoa, gillotinaz edo lumaz, emakumez jantzita edo hiperklasea erailda *1812 obertura* bozgorailuetatik entzuten dela.

Eta metal detektagailuen artean ez egoteko sozialismo erreala gaitzestera behartzen badute M, esango die urteen joanean handitu egin zaizkiela etxeen metro koadroak, eta ez zituztela kontuak atera, lur saindua ez dela sortzen egun bakarrean, izurriteak izango zituztela jakitun zirela, gizarte berria distantziaz eta gorotzez eraikitzen dela, barrua eta kanpoa ospitaleak direla merkatuaren lobotomian.

Sozialismoa instalatzeko bide-orria berrabiarazi du M langabeak. Sistema konbinatua: L kontablearekin eta bestelako burkideekin. Urgentziazko prozedura.

DENONTZAKO EGUNKARIA

> Prentsa aske bat sortu nahi dugu —eta sortuko dugu—; askea ez soilik zentzu poliziakoan, baita arribismoetatik eta, are, indibidualismo anarkiko burgesetik askea ere.
>
> LENIN

Iruñerriko Hitza egunkariko zuzendariaren maitalearen bizilaguna zen U behatzailea. 1993an sortu zenetik *Iruñerriko Hitza*ren goiburu eta filosofia bi hitzetan sintetizatzea lortu zuten: Denontzako egunkaria.
Hain zen garrantzitsua leloa ezen izen ofizialtzat ere hartzen baitzuen askok: IRUÑERRIKO HITZA, DENONTZAKO EGUNKARIA.

U behatzaileari sinestezina iruditzen zitzaion «Nola da posible denontzako ezer egitea? Kantina berdinzaleenean ere ezin da kafe bera atera langile guztien dastamen papiletarako».

Txantrea behe-lainoak jota zegoen batean *Iruñerriko Hitza* egunkariko zuzendaria maitalearen etxetik irten zen makur antzean. Ezker-eskuin begiratu zuen konpetentziako paparazziek ez zezaten pixel bilduma bihur. U behatzaileak *Iruñerriko Hitza*ko zuzendaria ikusi, espartinak jantzi eta korrika jo zuen bere atzetik. Izutu egin zen zuzendaria.

—Nor zara!

—Zu *Iruñerriko Hitza*ko zuzendaria zara, ezta?

—D jauna naiz, bai. Zer nahi duzu?

—Egun on, D jauna. Kontutxo bat. Ezin dut ulertu nola zuena bezalako egunkari aurrerakoi batek baietsi dezakeen denontzako egunkari bat egiten ari dela. Egun batean 168 langile kaleratu dituen Inasako burua elkarrizketatu duzue herabeki. Eta biharamunean kaleratutako langileen sindikatuko ordezkaria elkarrizketatu duzue espazio berean neutraltasun tonu berarekin. Eta handik bi egunera langile horietariko baten

andrea elkarrizketatu duzue Inasaren buruarekin izan zineten bezain atsegin.

—Bai, hala da. Hori da *Iruñerriko Hitza*ren filosofia.

—Baina badakizue JS aktore ospetsuari hiru orri eskaini dizkiozuenean ez duzuela deus ere esan egun horretan bertan Nafarroako antzezleku txikietan egiten ari diren antzezlanei buruz. Beraz ez dago distantziakidetasunik JSren eta Nafarroako antzezleku txikietako gidoigileen, aktoreen eta ikusleen artean.

—Ados. Baina hori ez du IRUÑERRIKO HITZA, DENONTZAKO EGUNKARIAk erabakitzen. Nor den handi eta nor den txiki ikusleek erabakitzen dute.

—Barkatu. Uste nuen egunkari aurrerakoia zela *Iruñerriko Hitza*.

—Eta hala da. JS eta jende handia aurrera eramatearen aldekoa da DENONTZAKO EGUNKARIA. Agian aurrerakoitasun mota hori dugula ez dugu esaten.

Hautapen naturalaren aurrerakoitasuna.

—Tira, agian lan handiegia da egunero denontzako egunkaria ekoiztea. Eta horregatik, azkenean, jende handiarena da *Iruñerriko Hitza*.

—Bai, jauna. Lan handia da *Iruñerriko Hitza* denontzako egunkari egitea. Erredakzioan sail berezia sortu genuen orain bost urte. Sail horretan lau behargin daude. Beharginen helburua zehatza da: txikiek handien aurka eginiko erasoen identifikazioa. Modu sofistikatuenak aurkitzen dituzte. Handien Defentsarako Saila deitzen da. Beharginak oso jantziak dira. Gerta dakiguke zutabe ziztrinenean, normalki txepelkeria biografikoak kontatzen dituen horietako batean, ezkutuko erasoren bat egotea. Ez dugu Txikien Defentsarako Sailik sortu behar izan. Txikiek handiak bai, baina handiek ez dute txikia kolpatzeko joerarik.

Jelosia izango da. Begira, esaterako, *Lautadako Albistaria*n ez dute lan hori egiten. Jende handiaren aurkako artikuluak argitaratzen dituzte. Ez dute ongi bukatuko.

—Ez dakit ongi bukatuko duten, D burkidea. Egun ona izan dezazula.

—Baita zuk ere. Eta ez ahaztu IRUÑERRIKO HITZA, DENONTZAKO EGUNKARIA —begia kliskatu zion D jaunak.

Hiru kale igaro behar izan zituen
U behatzaileak atzera etxera itzultzeko.
Hotz egiten zuen. Dar-dar egin zuen.

U behatzaileak argi zeukan: hankabikoen %1
aberastasunen %44aren jabe zen lekuan
denontzat lan egiten zutenak laguntzea
lepoen %80aren gainean
uztarria ipintzearen aldeko jarrera zen.

Posta-kutxatik *Lautadako Albistaria*ren
eguneko alea atera zuen.

SINDIKATUA

Masterreko S ikaslea
zutik jarri da jende oldearen aurrean.

—Oso urduri nago —esan du.

—Oso urduri nago —errepikatu du.

Aizu, nahikoa da S ikaslea!

Ez dut masterreko S ikaslearen pasadizoa
kontatuko.

F zuzentzailea *Berria*ren erredakziotik irten da.
Ez da X kazetariaren kolaborazioa iritsi.
«Ezin zara informatikaz fio. Ezta bizkaitarrez ere»
pentsatu du tren geltokian jaitsi denean.

F zuzentzaileak aterkia astindu du atarian eta
Sindikatuen Batasunaren eraikinean sartu da.

—Arduradunarekin hitz egin nahi dut.

—Ez dago.

—Nola ez dagoela?

—Sentitzen dut.

—Eta kotizatu dudan minutu bakoitza?

—Hemen ez dago arduradunik, jauna.

—Zer? Besapeko kiratsa, ezertarako ez?

—Jauna, ez zara datu-basean azaltzen...

—Baina aizu! Norentzat egiten duzue lan? Alprojak! Burokratak! Bederatzi urtez autonomoa izandakoa nauzu. Sei urtetan kontratu finkoa egin zidaten. Noizbehinkako lanak ere aitortuta!

—Barkatu, jauna, sindikatu honek ez du zure harreman fisiko eta afektiboen curriculumaren gaineko berririk.

—Utikan! Asko gara eta harriak dauzkagu.

—Ez guri mehatxurik egin, mesedez.

—Gaur gauean sekulakoak izango dira!

—Bai, jauna, egun ona izan dezazula.

F zuzentzailea ez da tren geltokira itzuli, ezta *Berria*ren erredakziora ere.

TEKNOKRATAK ETA LANGILEAK

Honek guztiak MT burkidea zikintzen du.
Eta EB andreari mahai-joko bat proposatu dio.

«Teknokratek pornografiari
erotismoa deitzen diote,
aristokrata anarkistek zinismoari
ironia» esan dio MTk andreari.

«Emakume heldu ederra burgesa bada
sentsuala dugu,
langilea bada
berotzaile lurrinduegia» esan dio EBk.

«Gizon heldu karismatiko neurotiko dirudunaren
neskatilekiko zaletasuna artea da, transgresioa,
igeltseroaren gaztetxoekikoa
pedofilia» esan dio MT burkideak.

«Gure lagun onen bidaiak
abenturak dira,

ezezagun langileenak
zabarkeria» esan dio EBk.

Working class ingelesek hil dute Bartzelona baina George Orwell gure heroia da [adb.].

INTERLUDIOA

«HEMEN HOBETO GAUDE» DIOTENEN KONTRA

Beti egongo da proletarioen geruza bat
pasiboki jokatuko duena eta bere klasearen
askapen borrokari begira egongo dena,
eta are marraren beste aldera
igaroko dira; zenbat eta gehiago izan
orduan eta gehiago garatuko da kapitalismoa

György Lukács

Jandreak labana bat dauka.
Entzuten duenean aldamenekoren bat

]hemen hobeto gaude[

esaten sudaderatik ahoa atera
eta zintzurrean jartzen dio aldamenekoari.

]————————————————————[

Jandrearen gatibuak dardarka azaldu nahi izan dio,
zurigarria errepikatzen duenak egiten duen moduan:
«Hemen Espainian baino langabezia txikiagoa
daukagu,

gainera bigarren sektore indartsuaz profitatzen
gara,
gure ekonomia ez da porlanean oinarritu,
horri esker aise suspertuko da gure abagunea».
J andreak gupidarik ez du eta hobeto dagoela esan
duenari
ebakiondoa exekutatu dio txepelkeria ikus dezan
ispiluan.
Marra bat egin dio zauria josi beharko dioten lekuan
]————————————————————————[
tenteltasunaren lekuko izan dadin
kotxeko ispiluan ezpainak pintatzean
eta bere maitalearen begi-keinuan. Justizia
pRoLetikoa.
]HEMEN HOBETO GAUDE[
J andreak ezabaketa kanpaina hasia du.
«Materialki miserablea denak
sinetsita haizatzen al ditu tesi sozial-chauvinistak?»
hara J andreak duen zalantzetarik bat.
Posible al da kognitario edo argiketari jantzia
daramana
kamuflatutako txakur kizkur bat izatea?
Confebasken, Adegiren, Cenenen
soldatapekoa izan al daiteke?

«Bestela —otu zaio J andreari— nola esan diezaguke
1.100 euroko soldatadunak burgesa dela
supermerkatuan marka zuria hartu partez
marka beltza hartzen duelako?».

«Beltza: elikadurako elegantzia»
esan zuten bazkaltiarrek filmean.
Heriotza gorbata beltza frak gastronomikoa.
«Seleqtia» pentsatu du J andreak.

]HEMEN HOBETO GAUDE[

Infusio diuretikoez gozatzeagatik
behin-behineko kroniko izateari utzi diola
uste duenarentzat limoi bat erdibitu du J andreak,
begietarik batean zukutzeko gertu dago.

]HEMEN HOBETO GAUDE[

J andrea xehetasunzalea da, hori ezin uka,
odol lehorra eta azal- eta ile-hondakinekin

]————————————————————[

—biziarteko
jostura—
oroigarria utzi dio lepoan opari operario
susmagarriari.

Asteburu gauetan bere alaba senegaldarrei
kafe beroa eramaten die hiri iparraldeko

zero azpiko biribilguneetara.
Alaba senegaldarrek eskuz edo ezpainez
barrabilak hurrupatzen dizkiete
kotxez heltzen diren jaunei
15 euroren truke. Baina diru hori
ez da haientzat, beste andre batentzat da.
Beste Andrea, hirugarrena J andrearen zerrendan.

~~]HEMEN HOBETO GAUDE[~~

Pintore kaleko pizzerian
egunkarien gaineko oharpen bat egin du J andreak.
Jabetu da tokiko behartsuak ez ikusteko joko
estrainio bat ari dela egiten *Noticias Taldea*
bere Araba eta Nafarroako edizioetako
izenburuekin:
«Arabak du espainiar estatuko
bizi kalitate altuena» edo «Nafarroak
Europaren maila berean jarraitzen du»
idatzi zuten zapatuan. Nafarroaren kasu harrigarria
sarean dago kontsultagarri. «Harrigarria»
errepikatu du
J andreak: ezpain ertzak kokotsera jaitsi ditu.
«Europan biztanleko berdegune gehien duen
hiria da Gasteiz» izenburua ere gogoko dute aurten.
Dena den, mezua nahasgarria da zinez. Bistan da.

Belardiotan ezin da kanpatu, ezta uhazarik landatu
ere.
Footingean ikus ditzakezu hankabikoak, hori bai.
«Inor izateko inbertitu beharra dago janzkeran
eta gimnasioan, arduragabe alaena zara bestela»
ulertu zuen J andreak hemeretzi urterekin gazte.

~~]HEMEN HOBETO GAUDE[~~

Ama Zuria jatetxean J andreak hobeto egotearen
bertsio garatu bat entzun zuen asteazkenean.
G arloteak «Hemen hobeto gaude; ez hori bakarrik,
beste leku batzuetan okerrago daude» esan zuen.
Jarraitu zuen baieztatuz «Gu ezin gara kexatu ze
beste batzuk dira benetan gaizki daudenak».
J andreak logika ariketa idatzi zuen]ON EGIN[
ahozapian:
inguruan dagoen miseria materiala ez da miseria
ezagutzen ez dugun eta ez dakigun leku batean
badelako egoera desastroso bat salagarriagoa dena.
Hain da penagarria hangoa, ezen identifikagarria
den
desastrea eta kiratsa salatzeari utzi behar baitiogu:
automatikoki, prebentiboki eta badaezpada.

~~]HEMEN HOBETO GAUDE[~~

Eta beraz, espekulazio domestikoak

(jabetza duten gure lagun jatorrek egindakoak)
espekulazio izateari utzi dio,
guk ahalbidetutako esplotazioak
esplotazio izateari utzi dio,
horrela denok bake santuan entzun dezakegu
Johann Sebastian Bachen *Meza Si minorrean*.
Eztarria berotu zaigunerako
ez ahaztu leloa, lagun, eta ez errepikatu
«Soweto EH baino hobeto» zaharkitua,
orain esan baitezakezu: «EHn inon baino hobeto».

~~]HEMEN HOBETO GAUDE[~~

Asteazkeneko G arlotea harrotu egin da gaur ere
hemengo tabernetako salgaien prezio altuez eta
probintziako uhal garraiatzaileak Pakistanera
eraman dituzten enpresez —kooperatiba hitza
erabili nahi izan du aldaera dialektal gisa—.
Azalpen taktiko batzuk ere eman ditu:
«Mila biztanleko hamaika polizia ditugu
—esan du anpuloso— espainiarrek zazpi,
frantsesek bost. NBEk hiru aholkatzen ditu
baina guk ordain dezakegu, hobeto gaudelako.

~~]GEHIAGO DITUGU, HOBETO GAUDE[~~

Hain gara zibilizatuak ez baitugu lapurtuko
ilegalki».

Ikasbide eta asunto deserosoak ez planteatu,
esango dizute —arrazoiz— lekuz kanpo zaudela,
ez duzula zure burua moldatzen jakin.
G arloteak zehazki esan du: «400 urte eta
batzuek oraindik ez dakite haien lan-indarra
kudeatzen,
negargarria, dena egina eman behar diegu».
Iraganeko hizkera darabilela esaten diote J andreari
baina J andreak ezetz, labana eternala dela
eta labana erabiltzeko motiboa are eternalagoa.
Labankada merezi du G arloteak, noski:
«Orain 1.000-euristek 600 euro irabazten dituzte
1.000 gehiegi zelako; bestela deskokatzeak egongo
dira».

]ABERATSEK DESKOKATZEKO ESKUBIDEA DUTE
dirua hementxe bertan uzten badute, betiere.
J andrearen proposamen sofistikatu baten
arabera,
gainbalioaren sustatzaileen gorputzarekin eta
bihotzarekin Chopinen gorpuaren destinoa
imitatu behar litzateke: zati bat Parisen
lurperatu,

bestea Varsoviako elizara garraiatu[

Jatetxeko telebistaren aparailu fonikoak argi du:
«Hain dugu gizarte ederra, gure arteko dirudunak
ere ez baitira dirudun, jende jatorra, jabe zintzoak,
enplegua sortzen duten izaki konprometituak,
gizarte honentzat —beste gizarteak pikutara!—
hoberena nahi duten filantropo eskuzabalak».
Urtean lautan txanpon batzuk lagako dituzte
limosna ontzian, mileskerrik asko, bedeinkatuak
zuek,
mileskerrik asko. Zuei esker:
]~~HEMEN HOBETO GAUDE~~[
Gema Zabaletaren —izenak esatea itsusia da—
aburuz, hiru morroi 900 eurorekin bizi daitezke
(ez da reality show bat, ezta ariketa umoristiko bat
ere)
hilabetez Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako zati batean.
]~~HEMEN HOBETO GAUDE~~[
Daewooko ehun eta berrogeita zazpi burkideak eta
San Ignacio Esmalteztaketako laurogeita
bederatziak,
haien senar-emazteak, seme-alabak
ongiegi bizi ziren; ez daitezela kexa, oihurik ez!

Doazela Puntacanara, eta dirurik ez badute
eska dezatela emango ez dieten mailegu bat
kutxa izateari utzi dion banku autonomiko batean.
Ez daitezela kexa, oihurik ez!

]HEMEN HOBETO GAUDE[

J andreari bereziki axola zaio salneurriaren kontua
eta gogoratu da bere hirian badirela
diputatu legebiltzarkide zinegotzi
superemakume eta supergizonak,
gai direnak lau mila bost mila edo sei mila euro
hilean kudeatzeko eta ezkertiar izaten jarraitzeko,
«Horrek ez du batere erraza izan behar»
konturatu da J andrea, eta berbalizatu egin du.

]HEMEN HOBETO GAUDE[

J andreari oso laudagarria iruditu zaio kosmosaren
batuketa nardagarriak dena aldrebes jarrita ere
animalia batzuen engaiamendu sozialerako
gaitasuna.
Hala eta guztiz, J andreak argi du arerioari buruz
honelakoak pentsatzea akats taktiko larria dela:
a) psikiatrikoki zoro dago, gizajoa!
b) nahikoa saiatu ez dena jeloskor dago, gupida!
c) gaiztoa da, abereentzako trenean Poloniara
dezatela!

J andreak badaki arerioa tratatu behar dela
gutxienik
Bohumil Hrabal jaunaren liburuan nazi
okupatzaileak
tratatzen diren begiramendu berberarekin.

]————————————————————————————[

Zalantzarik ez izan, J andrea bi esku dituenetakoa
da.
Liburutegiko fotokopiagailuko txartela eta
N andrearen ahoen maneiu zehatza lagun ditu
gainera,
hori ezinbestekoa da, hemen eta Txinan.

]————————————————————————————[

J andrea hobe daudenen lepoetan
orban ikusgarriki adierazgarriak
gauzatzen ari da egunotan.
Bere hurrengo proiektuetarik bat
]HORI ZURE IRITZIA DA[
esaten dutenen atzetik joatea da.
J andrea
]BUENO, HORI ZURE IRITZIA DA,
NIK NIREA DAUKAT,
BAKOITZAK BEREA DAUKA
ETA HORI DA HOBERENA[
diotenen atzetik ere ibiliko da kanpaina berrian.

HIRU

KOLABORATZAILEAK

Mitterrandek, Jon Paulo II.ak eta
Glucksmannek borroka bera dute

GUY HOCQUENGHEM

Denok pasatzen diagu gure intimitatea
Vocentoko lagunekin, edo
denok ez bada, ia denok

LANDER GARRO

Historia erreportajeek saldu digute kolaboratzailea bota beltz altuz, txano militarrez, Falangearen edo SSen ikurrez haserre zegoela eta odolzalea zela. Baina ez, orain badakigu kolaboak izan zirela Falangen edo Action Françaisen militatzeko adorerik izan ez zuten gorozki apolitikoak, zital umejaleenek ez zutela iritzi zehatzik honen eta bestearen inguruan, eta ez preseski azterketak sakonki eta xehetasunez eginagatik zalantzak sortu zitzaizkielako. Ez preseski.

Badakigu ere oharkabean, nahigabe eman zituztela gorri, berde, beltz eta horien izenak. Eta ez zietela behin ere fisikoki aurre egin gorriei, gorriak nagusi zirenean. Haiek, trenak gidatzen zituzten langile apalak, ongarria banatzen zutenak, informazioa eskuratzen zuten enpresari txikiak genituen. Ditugu.

Begiak aliketez ateratzen zituztenean, ezin ziren behargin xumeak besterik. Kolaboak: jende arrunta, kausa nazionalsozialistaren alde engaiatzeko kuraiarik izan ez zuten izaki irribarretsuak, uneoro zer egin eta zer ez egin argi aldarrikatzen zuten profesionalak. Egun ere gorotz bera zarete: Front National eta Partido Popular bozkatzera ausartzen ez zareten moralista apurtzaile adoretsuak.

Arrunkeria bikaintasunetik ospatzen duzuen hankabikoei dizuet izu handiena Galileoren esferan.

FOSFORO ZURIA

Iñaki langabea eta Izaro bekaduna
ez dira komando-kide izan,
haiena ez da borroka bera.
Material trukea egin dute,
baina horrek Izaro gaizkide
besterik ez du bihurtzen.

Iñaki langabeak eta Izaro bekadunak
ez dute helbururik partekatzen,
ez daude hotzik arrazoi berberarengatik.
Sua izan da elkar ulertzeko elementua.

Abenduan Iñaki langabeak fosforo zuria
proposatu zion Izaro bekadunari.
Bai, Izaro bekaduna ohartzen da
urez itota ere berpiztu egiten dela garra.
Baina ezpainak zartatzen zaizkionean
ados egoten da fosforoa erabiltzearekin.

Iñaki langabeak eskatu dio, ez dezala aipa
Arma Kimikoen Debekurako Erakundea,

ezta ere azalean dituzten erreduren jatorria. Irtenbide bakarra Iñaki langabeak alde egitea da. Nolanahi ere Izaro bekadunak hotzez jarraituko du bere erakundearen (Iruñerriko Mankomunitatearen) egoitza nagusiko berogailua konpondu ezean.

ASKATASUN KALEAN

Zinpeko berria destinatu dute
Askatasun kaleko Eroskin.
Aurreko zinpekoak ez zuen
adi eta ganoraz lan egiten.
Bere patxadaz eta pasibitateaz
lasaitasuna segurtatzen zuen saltokian.

Gaur Askatasun kaleko Eroskin
sartu naizelarik, belarrietan kaskoak,
keinua egin dit zinpeko berriak.
Ezikusiarena egin dut.
Esnekien sailera joan naiz,
jogurtak eta gazta hartu ditut.
Zukuen eremuan saskiratu ditut
olibak, dilistak, pasta freskoa.
Zinpeko berriak keinuak egin dizkit.
Ezikusiarena egin dut berriz.
Orduan fisikoki ukitu nau eta
nik kasko bat kendu dut esateko:
«Zer demontre gertatzen da!».
Eta zehaztu dit: «Barkatu baina

zakuak sarreran utzi behar dira».
Bizkarrean daramat zakutoa.
Zakutoa kentzeko keinua egin dut.
«Zerbait ostu dudala uste al duzu?
Begiratu barruan». Ez du begiratu.
Ez dut zakua sarrerara eraman.

Atzetik segitu nau, hamar bat metrora.
Laboreen zonaldean so egin diot.
Begirada beheititu du. Gerturatu eta
lotsarik batere gabe galdetu diot:
«Zerbait lapurtzekotan nagoela uste duzu?».
Ezetz erantzun dit: «Kontua da lehen
jendeak laboreetako jostailutxoak
ebasten zituela, baina orain gailetak».
Harrituta eskatu dizkiot azalpenak:
«Jostailutxoak ebatsitakoan ez zenituzten
zakutoak miatzen, baina orain erregistratu
egin behar gaituzue gailetak ostuz gero?».
«Bai, halaxe da» esan dit. «Ados» esan diot.

Askatasun kaleko Eroskin
zinpeko berria destinatu dute,
Europako Banku Zentralak bidalia,

Askatasun kalean austeritate plana
tentuz garatzen ari ote diren neurtzeko.

MASTURBATUAREN GALDERAK BIDEO PORNOAREN OSTEAN

Gaur egun,
begi bistakoa
ez-ohikoki eskasa da.
SERGEI DOVLATOV

Ze usain dute aktore pornoen
alu-zakilek biharamunean?
Nola garbitzen dituzte tresnak
lan egun luze baten ondoren?

Goi-mailako prostitutek
goxotasunez ematen diete
musu etxeko bikotekideei?
Txortan egiteko gogorik
gelditzen zaie sei-zazpi
sexu aldiren ondoren?

Produktoreek ordaintzen dizkiete
operazioak eta gimnasio orduak?
Estatuaren diru-laguntzarik jasotzen dute

ipurmasailetan dituzten tatuaiengatik
edo sponsor pribatuak erakartzeko
pegatinak besterik ez dira?

Zerk egiten du titi handitze bat
finantzaketa publikorako hautagai?
Nork erabaki du gizona emakumetzea
erantzukizun autonomikoa dela?
Baina gizonak gizondu nahi duenean
nork bere kapritxoak ordaindu behar dituela?

Nork erabaki du emakumea azala dela
eta beraz aldatu egin dezakegula?
Nor da moldagarria eta nork gal dezake
bere izatea ebakuntza-gela batetik igarotakoan?
Ba al dago ezer ebakuntza-gela on batek
ezin konpon dezakeena gaur egun?

Zergatik alda dezaket neure sexua
itxura aldetik eta, aldiz, pasaportean
ezin ditut adina, naziotasuna edo
hileroko diru-sarrera aldatu?

Hemen kafeari

Baqué esaten zaio
eta txortari kafe,
konpromiso ezari askatasun
eta askatasunari auto-errealizazio,
eta gehiegitan txortari plazer.

Zenbat bideo, zenbat galera.

HOGEITA BAT PROLETARIO

Gure belaunaldiak ez du amestu ere egiten
klase ertaina izatea. Gurasoek baino papergintza
maila altuagoarekin nomina murriztua
eta diru-sarrera ezegonkorrak izango ditugu.

Gure belaunaldiak ez du alienazioa suarekin
konpontzeko zilegitasunik: ez ditu ez bat-bateko
insurrekzioa ez bortizkeria mitikoa praktikatuko,
ez kutxazainen ez enpresaburuen aurka.

Gure belaunaldiak ez ditu emantzipazioa
edo erreakzioan esku laua edo ukabila
hodeietara altxatuko, ez ditu haizatuko
armiarmak, elefanteak edo mailuak.

Gure belaunaldia ez dute droga hilkorrek
aurretik eramango. Ez dugu epikarik,
bidaia iniziatikorik, proiekturik, errebeldiarik.
Mediokreak gara, Alderdi Ekologistaren aginduz

geure anai-arrebak Afganistango gudan

hiltzen ditugunean. Mediokre nahi gaituzte,
Duisburgen hiltzen gaituztenean tankerik ez den
desfile batean. Gure musikek ez dute hitzik.

Ez da 2010a proletarioek Verdi
abesten dugun garaia,
ez da 2010a Wagner barrikadetan
langileekin dabilenekoa,
ez da 2010a komunetan Beethoven
kantatzen denekoa,
gure musikek ez dute erritmorik
binario alienatutik landa,
gure jaiek ez dute zoriontasunik eta tristeziarik,
gure jaietan ezin da dantzatu, ezin da lardaskatu,
ezin da narkotikorik kontsumitu, gure jaietan
ezin da jendea ezagutu, ez dago geuretzako lekurik.

Mediokre nahi gaituzte eta guk
airerik gabe gelditu arte nahi dugu maitatu.
Zabortegiko hitzen gose gara eta
ezagutza errondan arduradunak identifikatu ditugu.

ESKUINAREKIN OHEAN

Jon Errekaldek ez du zalantzarik:
katoliko laikoen eskuen puntak dira zinbelenak,
haiexek dute erritmorik gozoena.
Beste patxada batez nahasten dituzte oroitzapenak
kontu korronteak hutsez borobilduta dituztenek.

]Hobe eraila izatea hiltzea baino[

Jon Errekaldek zeruertzeko aliantza
egin du eskuin klasikoarekin.
«Oroitzapenen kudeaketa polita».
Polita hitza debaluatu denetik
gusturago ahoskatzen du Jon Errekaldek.

Nekane Muruak jakintzaren zati bat
pribatizatu egin zuen; bere izenean erregistratu eta
ideien hustuketa egin ondoren disekatu egin zuen
Jonen azala, eta Jesus Christen ondoan jarririk
enplegu erregulazioa egin eta kanta bat eskaini zion.
Ukabila estutuz poloniera ikasi zuen Jon Errekaldek.
Rosa Luxemburgen dizipuluak

«chauvinista ukrainarra!» zela leporatu zion.
Irrigarria da, hein batean, Jon Errekaldek
ez dituelako inoiz espainiar proletargoa
ahultzen duten jarrera separatistak ezkutatu.

Jon Errekaldek ez du zalantzarik:
ez dago ohe eskuindar bat baina finagorik,
eskuindarrena da bilo miazkagarriena,
ez da han ez perbertsiorik ez gezurrik.
]«ateoa da kristaua izateko
gaitasuna duen bakarra»[
Liberal libertarioen transgresioak
oka eragiten dio Jon Errekalderi:
ez da berdintasunaren zale den maitasunik
eta errealitatearen printzipioa gailentzen da beti
]«behetik eta goitik»[
erakarpenaren tiraderan.

Jon bere buruaren lexikalizazioa dela
argi utzi diote Nekaneren nazka bekainek.

OKINDEGITIK IRTEN ONDOREN

Okindegian ume bat zegoen
eskolako uniformez jantzia,
nirekin jolastu nahian zebilena.
Haren amaren jantziei erreparaturik
bi aurreiritzi sortu zaizkit:
eskuindarra da, espainiarra da.
Eta orduan zalantza egin dut
umearekin jolastu behar nukeen
edo ez, nirekin ondo pasatuko balu
horrek ze ondorio izango ote lukeen
etorkizunean. Ardura handiegia
iruditu zait eta umea ikusiko ez banu
bezala egin dut, arrakastarik gabe.
Praketatik tiratu dit okindegiko umeak.
Eta nik amari begiratu diot, pentsatuz:
«Zu bezalako klase ertaineko
emakume eskuindar espainiar batek
ez lioke semeari halakoak egiten
utzi behar». Garai latzak gureak,
klase ertainek haien eginkizun

historikoei itzuri egiten dietelako.

Okindegitik alde egindakoan
Dato kale inguruan zeuden
gaztetxo batzuk hurbildu zaizkit.
ACNURen besokoa daramate.
Irribarre adeitsuak egiten dituzte.
Bizar zaindu gabea dute mutilek,
neskak ez dira erabat itsusiak
(neskek ez dute bizarrik).
«Un momentito para la solidaridad»
esan didate. Oso serioa dirudi kontuak.
Boligrafoa eta karpeta dauzkate eskuetan,
zeuk soilik ezagutzen dituzun
zifra batzuk bildu nahi dituzte.
Ardura handiegia iruditu zait eta
ospa egin dut aitzakiarik ipini gabe,
lurreko putzuetan oinetakoak
ez bustitzeko pauso luzeak emanez.

P JAUNAREN JELOSIA

Z tabernariak gizonak zituen gogoko
katramila afektiboak abian jartzeko.
Aldapa ostatuan lan egiten zuen
ostegun, ostiral eta zenbait larunbatetan
eta aldian behin diseinuak egiten zituen
ekonomikoki aiseago irauten segitzeko.
Fadoak eta kabaret abestiak atsegin zituen
Z tabernariak. Ez zuen ariketa fisikorik egiten.

M andreak Aldapan edaten zuen kafeina.
M andrea bi arazo larritan sartuta egona zen
eta zintzoki lagundu izan zion P jaun adeitsuak.

P jaunak emakumeak zituen gogoko eta
maite zuen M andrearekin gauzatu zuen katramila.
Mercedeseko ingeniaria zen P jauna,
negozio bidaiak egiten zituen Eslovakiara eta
Alemaniara. Azazkalak jateko ohitura zuenez
eskuak mintzen zizkioten hatz-bizarrek, baina
gustu ona izateko adina bazuen kreditu txartelean.

Sofistikatua izaten bazekien, jazza eta opera italiarra
gogoko zituen, astean hirutan joaten zen gimnasiora.

P jaunak gorrotoa zion Z tabernariari.
Z tabernariak ez zuen zergatia ulertzen,
ez zuen arrazoi taxuzkorik bere ustez.
P jaunak bere izaera osatzeko
konplexuak izango ote zituen?
Z tabernaria estonatuta zegoen: zer zeukan
berak ikustekorik horretan guztian?
Harritzekoa zen, hain zen arrakastatsua P jauna:
kotxe ekoizleen eta legebiltzarkideen txalo,
laudorio, eskupeko, zorionak jasotzen zituen;
erreferente bat zen lankideentzat.

M andreak ere ez zuen ulertzen zergatik
hitz egiten zion gaizki Z tabernariari buruz
eta zergatik egoten zen marmar etengabean.
Edonola ere, M andreari aski dibertigarria
iruditzen zitzaion P jauna: txarto mintzo zen
ingeniariez, muntaia katekoez, garbitzaileez
eta are bere buruaz ere irri egiten zuen.

«Bai, P ingeniariak gora egin du, bost axola zaiolako Mercedes kotxeen kolpebabesa erresistentea den edo ez» antzezten zuen P jaunak P ingeniariaren rola.

P jaunak arrazoibide molde hau erabiltzen zuen: ongizatea duenak ongizatea merezi duelako du, zoritxarra duenak zoritxarreko izatea merezi du. Haren arabera, garbitzaileak nahikoa saiatu ez ziren muntaia kateko langileak ziren, muntaia kateko langileak nahikoa saiatu ez ziren ingeniariak.
Z tabernariari tentelkeria iruditzen zitzaion.
Eta P jaunak gorrotoa zion. «Jasanezina da» esaten zion M andreari, edo «Harroputz bat da», edo «Ez du tonu egokia». Baina P jauna ez zen ari Z tabernariaren dikzioaren tesitura ezbaian jartzen.

Z tabernaria zoritxarrean oinarritutako mundu ordenaketan behe mailan zegoen, baina bere hatzen bidez biluztu egiten zituen erregeak, bere hitzen bidez tigre gisa jokatzen zuten arratoiak arratoi zirela azaltzen zuen. Eta orduan P jauna nahigabetu egiten zen tigrea ezin izateaz.
P jaunak gorroto itzela zion Z tabernariari.

EZ DITUT GORROTO SOZIALDEMOKRATAK

Amorrortu jaunak
gogoko du
mandatuak egitea.
Ez edozein ordea.
Zaldua jaunak
itxarongeletan
egon nahi izaten du.
Zergen aitorpena
egitera bertaratzen da.
Aseguru etxera.
Kontsumitzaile bulegora.
Telefono konpainiara.
Eta eserita dagoela
halakoak pentsatzen ditu:

«Ez ditut gorroto
sozialdemokratak
kolonizazioaren
abangoardia
odoltsua direlako,

liberalismoa eta
berdinkeria
ereiten dutelako,
hildakoen uzkiak
ireki eta gorotzez
betetzen dituztelako,
erretreta hartzeko aldia
Espainian, Frantzian,
Danimarkan, Alemanian
atzeratu dutelako.
Ez ditut gorroto
sozialdemokratak
sionismoaren
asentamendu bortxatzaile
ongi jantziak direlako,
ezta dirutan aberatsenek
eskuetan daramaten
bozka-papera
haiena delako».

ERDIPURDIKOEN KANTA

Gezurra da ezberdinak izan nahi dugula.
Erdipurdiko ereduen kopia estandarren
ahalik eta antz handiena izaten saiatu gara,
garenaz ase eta zoriontsu.

Ez gara gu baino ederragoen ondoan luzaroan
gelditzen,
ezta gure itsustasuna desbideratzearren ere.
Gure klon zarpaila nahi dugu alboan,
gu bezain gutxi dakiena sukaldeaz eta liburuez.
Gure enfasi maila markatzeko bi aldaera ditugu:
adjektiboen aurrean OSO jartzeko aldaera piztuta,
adjektiboen aurrean OSO jartzeko aldaera itzalita.

Kalean eta tabernan inork gehiegi begira ez gaitzan
ez gara isilik egongo ezta gehiegi berba egingo ere
beste bikoteekin ditugun hitz trukeetan.

Elkar maiteko dugu baina neurrian,
gure arteko bikoteak ez du mundua asaldatu nahi,
gure arteko bikoteak ez du mundua aldatu nahi.

Hiletara goazenean isuriko ditugun malkoek ezingo gaituzte ito. Ez dugu luzaroegi ez altuegi barre egingo
une irrigarrietan, zoriontsuegi garela nabari ez dadin.

Bikotekideekin eta maitaleekin soilik egingo dugu txortan, ez gaitezen sutan erre, hildakorik gabeko gatazkan, kerik gabeko tabernan.

Elkar maiteko dugu baina neurrian,
gure arteko bikoteak ez du mundua asaldatuko,
gure arteko bikoteak ez du mundua aldatuko.

NIRE BURUAREN KARIKATURA

Ez dute Napoleon zaharraren karikaturaren
karikatura soilik egin,
Napoleon zaharraren beraren
karikatura ere egin dute.

KARL MARX

Gizakiaren karikatura naiz
herriaren mespretxua.
Egunkari guztietan trufatzen dira nitaz.

ERNESTO CARDENAL

Aritz Zabalak Garbi Ramosi
bere buruaren karikatura dela ohartarazi dio.

Alternatibaren prentsa ofizialak
autoritatearen aurkako gudua hasi du.
Letren abangoardiak pantailan azaldu zuen
lider faxisten eta estalinisten arteko aldea.
Zabalaren eta Ramosen herriko

eszenatokietan ere denetarik dago:
txalo guztiak jasotzen dituzten diktadoreak
eta txaloak bueltatzen dituzten
«ni-zuek-bezala-historiaren-tresna-besterik-ez-naiz»
dioten antiautoritarioak-edo. Xentimoak ez dituzte
ordea populuarekin partekatzen.

Bai, Garbi Ramos bere ahotsa entzuten ari da,
Aritz Zabalak entzuteari utzi diolako,
Aritz Zabalak ez duelako eskurik.
Aritz Zabala epaitondo antzua da.

Hau ez da egozentrismo ariketa bat. Garbi
Ramos zurztasuna baieztatzen ari da soilik.

BURKIDEEN ARTEKO SOLASA

Idoiak D jauna
ikusi omen zuen
baina agurtu ez.

D jaunak Xabier
ikusi zuelarik
Santo Domingo azokan
esan zion: «Aizu,
Xabier burkidea,
Idoiarekin topo egin dut
baina ez nau agurtu».

Xabierrek ez zuen
tomaterik erosi
ez baitzen tomate sasoia,
eta erantzun zion:
«D burkide estimatua,
Idoiak ez zaitu agurtu baina
ez ditu ahateak ere agurtzen».

Halaxe izan zen. Idoiak
ahateak ere agurtzen ez zituenez
ez zuen D jauna agurtu.

EZ OHERATU NIREKIN

Honela esan zion Oihane Irazustak
Adur Goikoetxeari: «Ez oheratu nirekin
bibliografia hornitzeko;
jakintzak ez du jaberik
eta dakidan apurra zeurea da.
Ez eman daukazun bakarra,
zure gorputza,
nirea ez den hitzaren truke.
Nik beste batzuei hartu nien,
eman zuk orain hurrengoei».

Honela esan zion Oihane Irazustak
Adur Goikoetxeari: «Ez oheratu nirekin
besarkada bat behar duzulako;
berotasun eskubidea
bakardade neurotikoaren aurka
erabiltzen dugun arma da-eta.
Ez eskaini zure usain goxoak
funtsezko beharra duzulako.
Besoak trafikotik at ditut oraingoz».

Honela esan zion Oihane Irazustak
Adur Goikoetxeari: «Ez oheratu nirekin
bazkalostea entretenituko dizun
pinpirin bat nahi duzulako;
kafea doan da kantinan
eta nik zerbitzatuko dizut.
Euskal Errepublika Demokratikoak
oheetan behar zaitu, baina
oheetara joateko desira duzunean
ez nahastu liburuak eta oheak.
Ez naiz lubakiko ofizioko pailazoa,
irri eginarazten dizut
barrabilpeko giharrak
kitzikatzen dizkizudalako».

Hori zen Oihane Irazustak
Adur Goikoetxeari esateko zeukana.
Ez zion besterik esan.

CURRICULUM SOZIALDEMOKRATA

Demagun gizateriaren historia 24 ordu direla;
jabetza pribatua, klaseak, aberatsen eta pobreen
arteko bereizketa: azken 10 minutuak lirateke.
INJUSTIZIA / azken 10 minutuak.

ERNESTO CARDENAL

Ez nago zakurrek belardia
kakaztearen aurka,
belardia Guardia Zibilaren
aurrean dagoena bada.

[BUENO... ZU EZIN ZARA KEXATU]
Ezin zara, 628ko soldata 627koa baino altuagoa da
pixka bat es mucho
atzera goaz aurrera ez bagoaz
milesker kapitalaren think tankari eta bozgorailuei.
Ezin zara kexatu 366 euroko alokairua ordaintzean,
interneterako konexioa eta internet 34 euro.
Hobekuntza handien lekuko izan gara,

adibidez, McDonald’sek halal okela dauka
eta belarjaleentzako menua.

[BUENO… ZU EZIN ZARA KEXATU]
Sar zaitez irakaskuntzan eta bahitu jakintza,
izan praktikoa eta mespretxatu eztabaida.
Jakintzaren Tenplua ez da konjeturarako.
Curriculuma landu eta ez argudiatu doan.
Dolarra asmatu zuten urrea ezin zelako biderkatu
eta dolarra gutxiegitzat zutenean
mekanikoki asmatu zuten petrodolarra.
Transzendentziarik ez duen artea
balio ez duen eta existitzen ez den
urrearekin erosi:
*[petit*A PERFECT MOVE*]*
Berezitu zaitez txikikeriekin, begiratu
sorbalda gainetik, kolaboratu Unibertsitate
zaharra Power Pointen zerbitzura jartzen,
ez jakin ezeri buruz, harro erakutsi zeure praxian:
Jakintzaren tenplua hutsik dago
Eman ta zabal zazu
curriculum sozialdemokrata munduan
Zergatik egin tesi bat?
Egin egin behar delako.

PRAKTIKOA AZKARRA BERRITZAILEA.

Zuri bost axola zaizu eztabaida
zure tesi zuzendariari bost axola zaio eztabaida
zure tesi zuzendariak hau besterik ez du nahi:
albait lehen ordaindu hirugarren etxebizitza,
murritz diezazkiotela eskola orduak,
Madagaskarrera joan ekoturismoa egitera.
Eta zuk ez duzu ron-kolak zerbitzatzen ibili nahi,
zure anbizioa landuko duzu Jakintzaren Tenpluan.
Orain norbait zara. Zeuri ere axola ez zaizun
gai batean aditua zara orain. Edo gauza beraren
aldagai alternatiboa: benetan gogoko duzun
horregatik ordaintzen dizute EHUko garbitzaileek
eta Arregi Esmalteak-eko langabeek.

[BUENO... ZU EZIN ZARA KEXATU]

Zergatik ezkondu? Ezkondu behar delako.

ASTEAN BITAN DESINTERESATUKI.

Zergatik eraman gaur Daviden izarrak trenean
eta ez patatak? Daviden izarren garaia delako.

EGIN EGIN BEHAR DELAKO

Beste guztia tentelkeriak dira, erretxinen asuntoak:
AHTren aurkako asanblada eta funtzionarioen greba.

CURRICULUMA EGOKITU

Ez joan 10.000 lagunetik beherako elkarretaratze
batera.
HISTORIKOA IZATEARI UZTEKO ARRISKUA
Inporta duena da ezerk ez duela inporta
gure ekintzez ari garenean, elizara joateari
utzi diogun katoliko ultrapraktikanteak garela,
askapenaren iruzurgileak,
irabazi asmorik gabeko dirudun umilak.

[BUENO… ZU EZIN ZARA KEXATU]
Polizia beharrezkoa da. Enpresariei ezin zaie
presio fiskal handiagorik egin, bestela lanpostuak
galduko ditugu. Denok izan nahi dugu futbolari,
edo gure semea izan dadila, edo gure alaba
HAUTATU ARGAZKI EGOKIA
futbolari batekin ezkonduko dugu.
Nor dago BETI ALAVES! banderola
balkoian jartzearen aurka? Nork ez du nahi
kaiola bat bere-berea, eskriturak eta guzti,
hiltzen denean jendeak esan dezan:
kaiolaren hipoteka ordaindu zuen,
bere-berea zen, ez zen beste batena
bere egongelako kaiola.
BAINA NORENA DA BELARDIA?

Ez ditut eskuindarrak gorroto
ezkertiarren artean lezioak ematen
nahasten ez diren bitartean,
orduan nahiago dut belardira badoaz.